

# Nafarroa

Nafarrokako gehigarria / Ostirala, 1992ko uztailak 24 / II. urtea / 34. zenbakia

## Izokinak hasi dira berriro ugaltzen Bidasoa ibaian

Duela zenbait urte ia desagertuta —1982an ez zen ale bat ere harrapatu—, Bidasoako izokinaren alde egindako lana bere fruitua ematen ari da. Aurten hirurogeitabi izokin hartu dira Bidasoa osoan, hau da, 1977tik lortzen den kopuru altuena, eta Nafarroako Gobernuak martxan paratutako egitasmoaren arduradunak baikor dira arrakastarekin. Arrantzaleak ere pozik agertu dira nahiz eta hurrengo urteetan zaleak franko ugalduko diren.

### Barnean

#### ABAITUA



Bilboko argazkilariaren erakusketa ederra Lekunberrin / VII

#### ESPERANTOA



Euskal Herriko elkartearen presidentea Iruñean izan zen / VIII



### Zubian barna



#### BINGEN AMADOZ

**B**ezperan kantatua genuen pobre de mia eta gure arteko batenbat ere gau-pasategina zetorren, bainan zalantzarik gabe Sondikako aireportuan, hegazkineko enbarkea egiteko ilara luzean zai zegoen atzerritar hura baita sanferminetan azken mementurarte ibilia zen.

Txuri izandako bere zapatilen koloreak horren ziurtasun osoa eman zigun lehen begiradan. Halere, oinetakoan kolorea etzen nunbait pasatako festaren arrasto bakarra. Aurpegietan ere omen genuen ongi egonaren seinalea edo, agian, saferminzaletasuna agertzeko prest genuen denok konplizitatearen keinua. Atzerritarra hantxe hasi zitzaigun berehala, besoak airean altxaturik, Riau-Riau esaten bai eta 'A San Fermin pedimos...' kantatzen hegazkinaren barnean ere.

Zerbait badute ba, sanferminak jendea horren irekia eta begikoa egiteko. Askok esanen dute jendearengan alkoholak askatzen dituela lotsak. Eta, hainbatetan, arrazoirik etzaie faltako. Bainan, hori ez da arrazoi osoa, ezta gutxiago ere. Sanferminak edo ta Iruñeak ere badute bere majia berezia. Gure topaketa horretan etzegoen ez alkoholik, ez festagirorik ere eta hala ere bertan zegoen tarteko sanferminek gizaki oro harremanetan jartzeko duten botere misteriotsua.

Ez dakit festak gure nortasunaren ondorio diren edo alderantziz. Edonolaz ere festa-giroko Iruñeak ederki harrapatzen du bere hatzapar goxoetan bihotz-barnekoa azaltzeko prestutasun pittin bat behintzat daukan jendea.

Aurten zoritxarrezko gertaeraren protagonistak izan dira bi kordobatar gazte. Zorte handiagoko beste kordobatar bat ezagutu dut ordea sanferminetara etorri eta betirako gure artean geratu dena, Iruñeko zera horrek hartuta.

Konbentziturik nago bestalde, sanferminetan ezagaturiko lagunak eta sorturiko amodioak bizitz-osorako direla. Urteak joan ahala, bizitzako gorabeherak bañera edo bestera eramanen gaituzte, bainan sanferminetako magiak beti iraunen du festak bertean elkar-ezagutza egin duten bihotzetan.

## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Jesus Maria Bearen** margola bilduma uztailearen 26ra arte ikusgai egongo da Tafallako Erakusketa Aretoan. Erakusketa honen antolatzailea Tafallako Kultur Patronatoa izan da, eta bertan artistaren lan berriak ikus daitezke. Beak artearen munduan egin duen ibilbidea luzea da. 80ko hamarkadan inpresionisten bidea hartu zuen, baina geroxeago expresionistei jarraitu zien, azkenean arte abstraktoan murgildu zen arte. Margolariaren us-tez, Lizarra da bere obran eragiten duen gauza bakarra. Be gaur egun Lizarrako udaletxeko Al-mudi margola elkarteko irakas-lea da.

**Lucia Landaluca** margolariaren 'Entre lo manifesto y lo oculto' ('Ageriko eta izkutu-koaren artean') obra ikusgai egongo da Corellako Kultur Etxean. Erakusketa uztailek 26 eta abuztuak 2a bitartean gauzatu da.

### ANTZERKIA



**Goaz** taldeak 'Fernando bizirik ago oraindio' obra antzeztuko du uztailearen 27an Larraonako ikastetxean. Emanaldi hau UEUK gauerako prestatu duen programaren barne dago.

**Corellako Kultur Astearen** barne bi antzerki saio izango dira hurrengo astean. Lehenengo, Alhama taldearen 'Con la vida de otro' ('Beste baten bizitzare-

Aste honetan zehar izan dira Vianako jaiak, Nafarroan ospatu diren bakarrenetakoak, eta aste-buru honetan herri askotakoak gehituko bazaizkie ere, haraino joateko aitzaki aproposa eman dezakete.

Herri ederra, beti egon da Logroñora begira, gertu-gertu bait dauka La Riojako hiriburua. Horren lekuko: bertatik ateratzen diren ardoek 'Rioja' jatorrizko izendapena daramate.

Vianan ikustekoak dira Santa Maria eliza eta udaletxea, 1685koa, baina egunok bisita turistikoak egiteko aproposenak izango ez direnez gero, gertu da- goen Las Cañaseko zingirara bisita egitea aterabide ederra izan daiteke zorabiotik alde egiteko.

Zingira oso polita da, eta 100 Ha.ko zabalera du. Landaretza oparoa dauka: ihiak, milazkak, eta abar, eta uretan barboak, aingirak, zein zamoak topatu daitezke. Migrazio garaian atsedentleku aproposa izaten ohi da Las Cañas,

## La Riojari begira



eta antzarak, kurriloak, zein aha-teak gelditzen dira.

Mendavia ere herri garrantzitsu- suta izan zen Erdi Aroan, baina orduko gerrateek min handia

egin zuten herrian, eta porrotera eramane zuten, bere populazioa izugarri murrizteaz gain. Ezin da bertatik atera baratze-ko produk- tuak erosi gabe.

kin') obra ikusgai izango da Arte eta Lanbide Eskolan uztailearen 26an. La Claque taldeak bigarren antzerki saioa eskainiko du 'Orquesta de señoritas' ('Emakumezkoen orkestra') obrarekin. Antzezpena uztailearen 29an egingo da Maria Teresa parkean.

Aste Kulturalren barruan ere, Escaramuche eta Arbole taldeek haurrei zuzendutako bi lan an-

tzeztuko dituzte. Lehenengoak 'Las aventuras de Robin Hood' ('Robin Hooden abenturak') es- kainiko du eta bigarrenak berriz 'Pasakalles pirata' ('Kalejira pi- rata').

**La Teba**, Tuterako peñak 'Voy de play boy' obra antzeztuko du uztailearen 25 eta 26an. Musika eta antzerkia nahastuz komeria alai eta farregarria eskaintzen du- te La Tebakok.

### MUSIKA



**Siniestro total** eta Los del Ra- yo musika taldeek kontzertua es- kainiko dute Lizarrako zezen- plazan uztailek 25, larunbata. Emanaldi honetan parte hartzen duten taldeak kontutan hartuz ikusle- go handia bilduko dela aurrikus daiteke.

**James Edward Goettschek**, organu kontzertua emango du

### BESTELAKOAK



**Macuilxochil** mexikar taldeak dantza emanaldia egiteko du uz- tailaren 29an gauëko hamar t'erdietan Tafallako zezenpla- zan. Beste bi talde folkloriko ere izango dira Tafallan: Tungu- rahua Ecuadoreko balleta, uz- tailaren 30ean, eta uztailearen 31an, berriz, Cochabamba tal- dea.

### ERRAN DUTE



*«Ertaroko gizaku- meak ezin zuen bakarrik bizi».*

**Angel Sesma Muñoz**  
Historia Katedraduna

*«Allik Amaiurren egin zuena ez dator bat alder- diarekin».*

**Jaime Ignacio del Burgo**  
UPNko buruzagia

*«Kokoteraino nago epai- leak telebistan ikusteaz, eta oso gutxik egiten dute lan delituen kontra».*

**Santiago Cervera**  
Iruñeko ordezkotza zinegotzia

*«Bazkide bakoitzak badaki zer egin behar duen taldea ongi joan dadin».*

**Fermin Ezkurra**  
Osasunako presidentea

### ASTEKO PERTSONAIK

**Juan Cruz Alli**



Lehendakaria

**Jesus Miguel Casas**



Ziordiko alkatea

**Kepa Altonaga**



UEUko zuzendaria

**E**uskariak Amaiurko oroitga- rriren aurrean joan den larun- batean antolatu zuen ekitaldiak UPN eta Gobernuaren arteko ga- tazkaren kapitulu berria zabaldu du. Ez hainbeste ekitaldia —go- goratu behar Diputazioak or- daindu zuela bere garaian oroit- garria— nola agertu diren argaz- kiek —Zabaleta eta Cabasesen artean, eta abertzale historiko- kin batera—, min handia egin dute navarristen artean, bereziki Del Burgoren taldekideen artean. Allik, baina, garbi adierazi zuen: «Ez diot inori egiten dudaren berri eman behar». Gobernu ere bere alde ateratu zen.

**Z**iordiko Udalean ikurrina ba- rrik paratzeagatik jukatu zuten asteartean Jesus Miguel Casas alkatea. Fiskalak hiru hi- labeteko arrestoa eta 100.000 pe- zetako isuna (5.000 libera ingu- ru) eskatu zuen berarentzat, «bandera espainola iraintzeaga- tik eta desobeditze delituagatik». Defentsaz arduratu zen Adolfo Araizek, berriz, aske uzteko es- katu zuen. Ziordiko alkatearena ez da kasu bakarra, ordea. Euskal Herriaren independentzia alda- rrikatu zuten hainbat alkatek jus- tiziari aurre egin beharko diote irailean —Goizueta, Etxarri eta Arantzakoak, kasu—.

**U**EUk hogeigarren edizioari ekin zion joan den astelehe- nean, Manex Goihenetxek Iruñeko Larraona ikastetxean eman zuen sarrera hitzaldiarekin. Kepa Altonaga da ikastaroen zuzendari berria, Iñaki Irazabal- beitia bost urtetan zehar izanda- koari txanda hartu ondoren. Al- tonagak eta UEUK berak erroka berezia izango dute datozen urte hauetan, euskal unibertsitatearen gaia urtero eztabaidatzeaz gain, aurre horri buruzko mintegia antolatu bait da. Horretarako, ur- te guzti hauetan lanean ihardun duen taldearen lana izango da ba- liogarriena.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10eta- ra... **Xinguli Mangulu** hau- rrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00eta- ra... **Karakola segi hola** gaz- teendako saioa.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irra- tsaio musikala. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka- rrizketak.

## HATOR FESTARA

# Zezenplaza Tuterako jaietako gune nagusia

AINHOA ARROIABE / IRUÑEA

Ohitura jarraitzaileak eta era berean berritzaileak dira Tuterako jaien ezaugarri nagusiak. Batetik, ohizkoak diren ekitaldiak errepikatuko dira eta bestetik, berrikuntza erakargarri anitz ere izango dira Tuterako jaietan. Zezenplazak lehen-tasuna hartuko du aurtengo jaietan bertan gauzatuko bait dira ekitaldi nagusiak.

Goizero, tauro-maki eskolatarako ikasleek 'zezen jaialdi' bat eskainiko dute, eta aurtengo berria den ekintza hau dohainik izango da. Arratsaldero ospatuko diren zezenketak kalitate handikoak izatea espero da batik bat parte hartzen duten toreatzaileak kontutan hartzen baidugu: Cesar Rincon, Ortega Cano, 'Espartaco', Enrique Ponce, Curro Vazquez eta Sergio Sanchez, alegia.

Zezenplazak bere baitan har-

tuko ditu baita ere gauero egingo diren musika emanaldiak eta ikuskizunak. Emanaldiak -goizeko 'zezen jaialdiak' bezala- berriak direnez, dohainik izango dira, helburua ahalik eta jende gehien erakartzea bait da. Udaletxeak ekintza berri hau azpimarratu nahi izan du famatuak diren pertsonen saioak eskainiz. Hau da Norma Duvalen kasua. Artista honen ikuskizuna uztailearen 29an, asteazkena, izango da.

**Z**ezenplazan izanen dira gauero musika emanaldi eta ikuskizunak. Emanaldi hauek, goizeko 'zezen jaialdiak' bezala, dohainik izanen dira.

Expota doazen talde folkloriko batzuek Tuteran atsedena hartuko dutenez, euren herrietako dantza eta ohituen berri emango dute saio berezi baten bidez.

Talde hauek, Bolivia, Ecuador eta Mexicokoak dira.

Bestetik, Tuterako haurrek zinemaz gozatzeko aukera ezin hobea edukiko dute. Hirian dauden bi zinemark goizero irekita egongo dira umeentzako saio bereziak eskaintzeko.



Tuterako plaza.

PATXI ULAIAR

## Bederatzi egun iraungo du jaiak Garesen

A.A. / IRUÑEA

Uztailaren 24ean, eguerdiko ordubatean piztuko den suziriak Gareseko jaiari hasiera emango die. Jaietarako antolatuta den ekitaldi zabalak uztailearen 25ean, larunbata, Santiago egunean izanen du hasiera, eta ohitura zaharrei jarraituz 'Santiagoko egunsentia' abestuko da goizeko seietan. Gero, hamaikak aldera, meza eta prozesioa izango dira.

Prozesioaren ostean Mena enparantzan, Saint-Sever herriko udal korporazioarekin bilduko da urteroko jumelagea. Bi korporazioak elkartu ondoren, 'Ikurriñen Agurra' ikusteko aukera edukiko dute.

Jakina da garestarrek duten zezen zaletasuna, eta arratsaldero, kale Nagusitik Mena enparantza bitartean entzierroak korritzeko aukera izango dute. Uztailearen 26 eta 29an bi entzierro bereziak egingo dira, goizeko sortzietan eta 'Auntzen maldatik'.

Erraldoiak, buruhandiak, eta Gareseko Gaiteroek kaleko giroa alaituko dute goizero. Bestetik, Gareseko haurrek herriko kaleetat jabetuko den ikuskizun berezi batean parte hartzeko aukera izango dute.

## Olaztin herritarrentzako jaiak

A.A. / IRUÑEA

Olaztiko jaien antolatzaileen helburu nagusia herritarren partehartze zabala lortzea da. Hau dela eta, Olaztiarren gustuak eta nahiak kontutan hartu dituzte egitaraua prestatzerakoan. Honen adibidea, motorrez egiten den entzierroa da. Joan den urtean, herriko koadrila batek, zenbait gurasoren laguntzarekin, ekintza berezi honi hasiera eman zion. Motor bat hartu eta adarren antzeko makilak jarri, eta herritik bueltaka ibili ziren. Entzierro honek arrakasta izugarria lortu zuen. Bertako haurrak, gazteak eta helduak primeran aritu ziren korrika motorraren aurrean, eta aurtengo ere errepikatuko da. Hori bai, aurtengoan programa ofizialaren barnean egongo da.

Nahiz eta jai hauen helburua olaztiarren artean ospatzea izan, antolatzaileek kanpoko jendea erakarriko duten emanaldiak ere prestatu dituzte. Honela, Dantza Jaialdiak herriko zein zonaldeko ikusleago bilduko du.

## Zikiro jana Elizondoko jaien amaieran

A.A. / IRUÑEA

Pedro Mari Esarte Elizondoko alkateak jaiari hasiera emango die hilaren 24ean, astelehena, lehenengo suziria piztean. Arratsaldero sortzietan salbea egingo da, herriko agintariak, erraldoiak, buruhandiak eta gaiteroen partehartzearekin.

Uztailaren 25ean Santiago eguna ospatzen denez, Hilarion Eslava abesbatzak Elizondoko meza abestuko du, joan den berrogeitamar urtetik hona ohizkoa izan den bezela. Mutildantza ere dantzatuko da egunero arratsaldero 8etan, eta bertan herritar guztiak parte hartzeko aukera izanen dute.

Goizero, erraldoi eta buruhandiak herrian zehar ibiliko dira, eta igandean Txantreako Erraldoien laguntza edukiko dute. Hau dela eta Elizondoko kaleetako giroa ohi baino koloretsu eta zaratsua izango dela espero da. Baina beste ekitaldi batzuek ere kalei bizitasuna emanen diete. Horrela, txotxongilo saioak egingo dira, Bihar eta Kiska taldeen eskutik. Dena den, herriko haurrek ondo pasatzeko aukera gehiago edukiko dute, batik batik, uztailearen 26an ospatzen den 'Haurren egunean'.

## Luzaiden, pilotazaleen jaiak

A.A. / IRUÑEA

Luzaideko jaietan protagonismo berezia izanen dute pilota partiduek, ez alferrik da bertako tradizioa, Nafarroa Behereko pilotariekin frankotan parez pare paratu duena. Horregatik, festak pilota jokoa inguruan mugituko dira, eta egunero pilota saioak burutuko dira bertan. Hau dela eta, Nafarroako pilotazaleak Luzaidera hurbiltzea espero da.

Pilota lehiaketa gehienetan zaletuak izango dira partehartzaileak. Hauentzat garrantzi handikoak dira frogak hauek, pilota jokoa daukaten trebezia erakusteko aukera izanen bait dute, eta pilotaren munduan murgiltzeko asmoa duten gazteak jokaldi onak egiten saiatuko dira.

Bergara II eta ArretxeK, Errandonea eta Bengoetxea IV.aren kontrako partidua jokatuko dute. Zalegoak zirrara handiz espero du, bertako semearen partaidetzaz gain, profesionalen maila eta jokaldi bikainak ikusiko dituztelakoan. Bestetik, pilotarekin zerikusirik daukan 'joko garbi', iparraldeko pilota jokoa-ren finalean parte hartu zuten jokalariek errebantxa jokatuko dute Luzaiden. Azkenik, pala lehiaketak ere egongo dira, baina

hauetan bakkarririk zaletuek edukiko dute aritzeko aukera.

Igandean, uztaileak 26, Santiago eguna ospatzeko ohizko ekitaldiak kanpo trikitrixak izango dira eguneko sufestak gauetz. Goizean goiz trikitilariak herriko karririk zeharkatuko dituzte auzokoak jai giroan murgilaraziz. Gauetz, sufestek kolorez estaliko dute Luzaiden zerua.



Luzaide.

## BIDASOAKO IZOKINAREN BERRESKURAPENA

**N**afarroako berezko produkturik famatuenetakoa lurraldearen mugetatik kanpo, zenbait urtetik hona urrituz joan zen kopuruz, eta 1982an ez zen alerik harrapatu. 1988an Nafarroako Gobernuak

berreskurapenerako egitasmoari ekin zion, eta horretarako hasieran Islandiako aleak erabili baziren ere, iaztik hona soilik Bidasoako izokinkumeak hazten dira Oronotz-Mugaireko arrain-haztegian.

Emaitzak aurtan antzematen hasiak dira, azken hamabost urte hauetan lortu den harrapaketen kopururik altuena atera bait da uretatik iragan asteburuan amaitu den kanpainan.

# Bidasoako izokinaren itzulera


PATXI ULAIAR / IRUNEA

Nafarroako Gobernuak 1988an ekin zion Bidasoako izokina berreskuratzeko egitasmoari, populazioa bera gorantzako bidean zeramanean, eta lehendabiziko emaitzak antzematen hasiak dira. Egitasmo honen barruan, Oronotz-Mugairiko arrain haztegiak berebiziko garrantzia dauka, bertatik koordinatzen bait dira azterketa eta plangintza guztiak.

Izokinak otsail aldera ibaian sartzerakoan, hazteko, xedera berezien bidez harrapatu eta daramatan hazia botatzera behar izaten dituzte. Hortik lortzen dira ehun mila arrautza inguru, arrain haztegiak haziko direnak. Horietatik % 80 heltzen dira uztaiera arte eta hirurogei mila inguru ibaira botatzen dira, dagoeneko izokinkumeak.

Horretarako toki egokienak aukeratu dira, izokinaren arazorik handienetakoa errute lekua bait da. Hori abendu aldera egiten da, eta askotan paratzen dira uztailean lehor egongo diren lekuetan. Beste hogeita mila apirilamaitzera arte gordetzen dira, izokinak itsasora itzultzen diren garaian, eta itsasoaren ondoan botatzen dira. Hauek nitrogeno likidoarekin markatzen dira, beren nondik norakoa aztertu ahal izateko.

**IAZTIK**, Egitasmo honen lehendabiziko urteetan Islandiako izokine-



## AZKEN hamabost urteko

kopuru altuena lortu da aurtan, hirurogeitabi ale, hain zuzen. Hondarreko bost urte hauetan ere, beheranzko joerari buelta ematea lortu da, oso urte txarrak pasa eta gero. Hala ere, harrapaketen datuak baino gehiago, dagoen egitasmoak piztu du arrantzaleen poza,

lehendabiziz administrazioak berreskurapenaren ardura hartu bait du bere gain. Hirurogeiko hamarkadan lortzen ziren zenbakietatik urrun oraindik, arrantzaleek egun duten kopurua —berrogeitamar Nafarroako zatian— gehitzea espero dute laister.

kin ere egin zuten lan, baina iaztik aurrera Bidasoakoekin bakarrik ari dira lanean. Oraindik agertzen dira Islandiako aleak, baina espezie honetan oso erraz desagertzen dira kode genetikoko gehiengo den espezieen onerako.

Izokinak itsasoan egiten duen bidaia oraindik ez da zehatz-

mehatz ezagutzen, baina desberdintasun nabariak daude ale ezberdinen artean. Batzuek urtebete soilik ematen dute itsasoan, beste batzuek bi, hiru edo gehiago. Enrique Castin Nafarroako Gobernuako teknikari eta egitasmoaren arduradunetakoak azaltzen duenez, itsasoko iraupen honetan baliabide asko hartu behar

dira kontutan. «Batzuk Groenlandiaraino heltzen dira, hango arrantzaleek harrapatu izan dituztelako, eta beste batzuk ez dira Kantauritik ateratzen. Oso konplexua da zergatia argi eta garbi ezagutzeko, baina badirudi itsasoan denbora gehien ematen duten aleen izokinkumeek ere horretarako joera daukatela, eta zen-

bait ibaitakoek horretarako joera handiago dutela bestetakoek baino». Hori da, hain zuzen ere, oraingo erroka, izokinek itsasoan ematen dituzten urteak gehitu ahal izatea.

Beste galdera da nola moldatzen diren izokinak 'beren' ibaiak ezagutzerakoan. Castinek

**I**zokinak, beren ibaiak ezagutu ahal izateko, usaimen kimikoaz baliatzen dira, eta uraren garbitasuna, konposaketa eta ezaugarriak desberdintzen dituzte. Kostaldera iristerakoan, zeharkatu egiten dute, ur egokia aurkitu arte.

azaltzen duenez, usaimen kimikoari esker, berehala ezagutzen dituzte ibaiak uraren ezaugarriak: garbitasuna, konposaketa, eta abar. Kostaldera heltzerakoan, zeharkatu egiten dute 'beren' ura ezagutu arte. Hori dela eta, bidaian galtzen diren kopurua oso txikia da, baina gertatu, gertatu egiten da. «Bidasoan jaso izan ditugu Nivan botatakoak, eta alderantziz, baina oso kopuru txikian gertatzen da».

## Bidasoako 'pedigree'


P. U. / IRUNEA

Bidasoako izokina betidanik izan du berebiziko fama, 'pedigree', eta oraindik ere eskasia garaian, jatetxe famatuen eskeintzen artean agertzen zen. Benetako luxua zen orduan, eta urtearen pare ordaintzen zen.

Hala ere, eta plater gainean antzeman daitekeena kenduta, Bidasoako izokinak ez dauka aparteko berezitasunik, Enrique Castinek azaltzen duenez. «Genetikoki ez daukate berezitasun azpimarragarriak, eta daukana ere gutxienezkoa da. Benetan garrantzitsua da, ordea, barruan daukaten mensaia, ikusten ez duguna. Izokinak oso lotuta daude ibaiarekin, eta beren eboluzioa ibaiaren ezaugarriekin bat dator.

Hori aldatzea oso kaltegarria izan daiteke, hau da, arazoa ez da mensaia honi buruz dakiguna, ez dakiguna baizik. Horregatik bertako espeziea errespetatu behar da, eta orain soilik Bidasoako izokinarekin egiten dugu lan».

Hala ere, espeziea babestera-koan, ez da inolako aukeraketarik egiten, espeziea hobetzeko, eta jatorrizko populazioaren ezaugarriak eta aniztasuna errepertzen saiatzen dira. «Aukeraketa hoberena ibaiak hasieran zuten populazioa lortzea litzateke —dio Castinek—. Hasten bagara aukeratu txikiak edo handiak, hautsi egiten dugu ibaiak dagoeneko egin duen aukeraketarekin, eta hori oso arriskutsua da. Ibaiak egin duenean, zerbaitengatik izango da».



Sasoi honetan harrapatutako bi ale.

MARTIN GOIKOETXEA

## BIDASOAKO IZOKINAREN BERRESKURAPENA

### Goiz bat kainabera behin botatzeko

P.U. / IRUNEA


Arrantzaleen artean ere poza nabaria da, errespetatu behar dituzten kopuruak gorabehera, eta administrazioak abian paratu duen egitasmoaren alde agertzen dira erabat. Jose Maria Gainza Berako ehiztari eta arrantzaleen elkarteak «oso positibotzat» jotzen du joan den asteburuan amaitu den kanpaina, «izan dugun gorakada ikusgarria izan baita».

Nafarroako zatiari berrogeita-mar ale dagozkio, eta kopuru hori lortzen den egun berean amaitutzat ematen da kanpaina. Hala ere, azken egun horretan nahi adina harrapa daiteke, eta joan den hemeretzi, igandean, beste hamabi atera ziren uretatik. Hortik hirurogeitabiko kopurua.

Lortzen diren egun berean utzi egiten zaio arrantzari, eta Gainzaren esanetan, ez dago arazorik arrantzaleen aldetik, «onura aterako dutenak gu izango bait gara. Bilera bat egin genuen Irungo arrantzaleekin, eta haiek ere prest agertu ziren arrantzari uzteko».

Kopuru haiek kontrolatu ahal izateko zinpeko zaindarien laguntza izaten da, eta egunero bi aldiz igarotzen dira arrantza egiten den tokietatik. Harrapatutako aleei neurriak hartzen zaizkie, eskamak ere kontrolatzen dira, odola ateratzen zaie, eta datu guztiak diputazioaren teknikoei ematen zaizkie, azterketarako.

Gainzaren ustetan, ez dago ziria sartzerik. «Badakigu izokin bat kontrolatu gabe atera zutela, baina bat besterik ez da izan. Gai-




Endarlatsa eta Bera bitartean egiten da arrantza.

MARTIN GOIKOETXEA

nera, arrantzarako tokiak oso zehatzak dira, arrantzale asko dago, eta normalean ez dago ezkututzerik». Kanpaina honetan harrapatutako izokin gehienak hiru kilotakoak izan dira, 7.300 gramoko bat atera bazuten ere.

Arrantzarako toki eskasak, Endarlatsatik Berako fundizioetako presaraino, ez du arrantzale askotarako lekurik uzten. «Lehen, berrogei bat agertzen ginen, baina aurten jende berri asko aritu da, eta jarraian berrogei minutu baino gehiago ezin bada egon, heldu den urtean, akaso, goiz osoa galduko dugu kainabera botatzeko, baina tira».



### Ikastoletako 'Julian Larumbe Martxa' Urbanasan

M.K. / IRUNEA

Duela bost urtetik hona egin den bezala, Urbanasan zehar martxari ekin diote uztaile honetan Tolosako Laskorain, Gasteizko Toki Eder, Atarrabiako Paz de Ziganda eta Lizarrako Lizarra ikastolako gazteek. Aurten, baina, izen aldaketa etorri zaio martxari, Julian Larumbe haste hasetik bultzatzaile izandakoa eta duela hilabete hil zenaren omezez. Hori dela eta, hemendik aurrera 'Julian Larumbe Martxa' izena izango du ikastola hauetako gazteen artean ohizko bihurtu den bederatzi egunetako txangoak.

Ibilbidea ere urterokoa izango da, hau da: Irantzuko Monastegitik atera eta Larraitza aterperaino, hortik Dulantzera (Urbanasako tokirik altuena), Otsaportillo (bertan bi egun emango dute), Arratondo, Santa Marinako ermita, Kataliturriko bordak (akanpada egingo dute), Legunbe, Kiristinos (Ameskoa), Noriturri eta Zudairera, ibilbidea amaitzeko, Urederratik.

Egun guzti hauetan zehar, ipar orratzen bitartez egingo dituzte gazteek orientazio ikasketak, eta bordak eta aterpetan egingo dute lo, baita dendetan ere zenbait egunetan. Helburu nagusia bizi-raupenerako zenbait ikasketa jasotzea da, eta gurasoek bi egunetan igotzen diete janaria eta arropa. Txanda bakoitzean hamabost haur inguruk hartzen dute parte, denak aipatu ikastolakoak.

mintzoak

## GISELE

### Pijama soinean top-lessean

Energia guzia da, ezen energia-rik gabe ez da deus izaten ahal, ez maitatzerik ezta maitasunik ere.

(ELPORNOGRAFO. John McGahern)

● Gisèlek ortzirale gauak bazeraman bolada bat etxean ematen zituela, supazterraren ondo-ondoan, telebista izekirik eta pertsonen elkartzean beti harreman lizunak xehe-xeheki adierazirik agertzen dituen libururen edo aldizkariren batekin zango tartean. Berak ez zekien zergatik azken bolada honetan zegoen hain etxekoi. 'Adina, ote?', galdetzen zion behin eta berriro bere buruari. 'Ez daiteke. Benetan ari ote naiz zahartzen? Bene-benetan? Hogeitabederatzi urte baizik ez dut! A! Baina, bai, egia da: dagoenez ez dut hamazazpi ur-

teko freskura, hango behakozolia, honerako esperantza bera'. Berotan zeukan kafesnea kikara handi batetan bota, ez-tiontzia eta gailetak hartu eta lehen bezala jarri zen telebista aitzinean, alegia, lurtean, tapizean, supazterraren ondo-ondoan, pijamaz jantzirik, galtzerdiz ere kanpoan elurra gogor—eta lasai bazen arren— triste ari bait zuen. 'Gaur, Iruñera joan beharra nuen, ikaskide izan nituenekin afaltzera; baina, hiruk ez zuten joaten ahal eta afarilegea bertze aldi batetarako utzi dugu. Tamala. Noiz ikusiko ditut berriro usu baino usuago oroitzen naizen mutil lagun kutunak!'. 'Uda heldu dun polilita! —aditu uste zuen—. Egunkaria izkiriatzeko erabiltzen dudan agenda feminista

Eguzkipeko esperientzia pizgarriz beteko dun. —Ahotsa ez zihoakion; aitzitik, bertan zegoen oraino erraten ziolarik—: Haragikeriazko soak jasoko ditun eta orobat haragikeriazko musu-miazkaldi freskatzaileak, zeinak hik gorputz osoaz ferekatu ere egingen ditunan'. Lehen gaileta jan zuen. Aski goxo zegoen eta samur-samur zenez, berehala ahoratu zuen hurrengo; anartean, telebistak erne erne soz zeukan gaia —ikus-puntu aitzinakoiz landua— Kuba zen-eta. 'Laguna lanean, lagunak lagunekin, eta ni hemen, hiri erts honetan hilak bezain bakarrik'. Erreportaia akitu eta dzuintaz hautatu zuen katea pribatua laster daniar pelikula porno bat paratu behar zutelako. 'Soldata jasotzen

dudanean —pentsatzen zuen doi bat alegeratuz—, halako dardaragailu bat erosiko dut gisa honetako bakardadea eman-korrango suerta dakidan'. Pelikula osoa betaurreko jantzi behar berriak jantzirik ikusi zuen; ederki ikusi ere, izanez ere motel samar zituen begien aski mesedegarri bait zituen. Pelikula akiturik, bertze kateetan gustoko ja ere ez zenez, telebista itzali eta ohatzera joan zen pelikula ikusten ari bitarteko energia guzia nafarrilarrari, baita bular solteei ere, zirkin-zirkinka eta gozamenak sortarazten zizkion oihuminez ase nahiez masturbatzen. Masturbatu ondoko ahulezia lo-ekarlea etorri ez eta, hotzik ere ez, etxe azpiko 'top-lessera' jaitsi zen, zegoen bezala, pijama jantzirik,

izerdi-zurrustaz, ea gazte erakargaririk etxeratuko ote zuentz: biharamuneko laguna eta bertze egun batetako dardaragailuaren erosketa artean haragi xerats, begi distirant, esku bero laztangarri, oin biluzi busti eta zurrupatzeko zakilik behar zuen. Beraz, aukera agian behean. Lehendabiziko begiratu emana, betseinak zabal zabal egin zitzaizkion lokaleko argi eskasa goiti beheiti. Neskatxa zerbitzari guziak titihas zudelako? Ez uste. Zergaitik ote biharamunearan erranen zion pozaren pozez lagunari.



## Gazteendako Zokoa

## Ipar-ahatea

Anas strepera  
Ahateen arbasoa  
Oso urria Nafarroan  
Bakartia eta zaila



## Ikusteko zaila

Oso urria, ez da batere erraza ikusten, bere koloreak ere ez bait dira oso erakargarriak. Arrak narra dauka lepoaldea, eta emeak, noizbehinka, moko laranja. Laku, aintzira eta emari motela duten ibaietan aurkitu daiteke aise, beti ere ur gezan. Txofrakiak ur ondotik eta landaretza trinkoaren artean paratzen ditu, baina lehorrean beti.

Ez ditu batere gustoko taldeak, eta beti banaka edo talde txikitan egon ohi da. Elikatzeko kimuak, hostoak, haziak, eta baita harrak, txapiskolak eta arrain txikiak ere harrapatzen ditu. Horretarako lur azpira egiten du murgilaldi azkarren bitartez.

Mendebaldeko Europakoek ez dute migrazioerik egiten, baina iparraldekoek eta ekialdekoek, ordea, urtero ekiten diote bidaiari. European, hain zuzen ere, nahiko ugaria da erdialdean eta ekialdean, eta baita Poloniako ekialden ere.

Nafarroan, nahiz eta oso urria izan, biologoen azterketek antzeman ahal izan dute zenbait ale Pitillaseko aintziran, eta horrek esan nahi du bertan erruten dutela.

## Bermeo-Ciudad del Cabo 1989 (I)

## XABIER DE MIGUEL

Jon Kepak hamalau urte zitue-nean ikastolan ez zuen nota on bat ere ateratzen. Bere aiton-amonekin bizi zen Bermeoko alde zaharreko pisu batetan. Bere aiton-amonei, ikasketei buruzko gauzak ez zizkien kontatzen, beraz haiek nahiko kezkatuta bizi ziren. Behin, amonak aukeratu-tako neskameak, Jon Keparen logela garbitzen ari zelarik, ikastolako notatxo bat aurkitu zuen. Nota horretan, ikastolako zuzendariak idatzitako hitz batzuk irakurri zituen: 'Marcotegui Jaun-Andrea: Jon Keparen egoerari buruz hitzegitea gustatuko litzaidake. Mesedez bihar seietan nere bulegora etorri'. Neskamea asko harrutu zen, Markotegi jaun-andrea (Jonen gurasoak) zuela bi urte hilak bait ziren, berebilaren istripu batean. Maitek (neskamea) Jon Keparekin hitz egin zuen.

—Jon, begirazak hau.  
—Zer dinagu hemen?  
—Zergatik ez duk esan hire gurasoak hilak dirala?  
—Ez zekinat. Nere aitonekin bizitza ez dinat gehiegi atsegin.  
—Eta?  
—Ez dinat nire lagunek hontaz enteratzea nahi.  
—Ea zer esaten duen aitona hau ikustean.

—Ondo da, emaiion notatxoa aitonari.  
Aitona ez zen harrutu, nahigabetu baizik. Hurrengo egunean aitona zuzendariaren bulegora abiatu zuen. Hizketan ordu t'ardi aritu ziren, baina ez zuen ezertarako balio izan. Ikastolan oso txarto jarraitu zuen, eta 16 urtekin ikasketak utzi zituen.

Lagun zahar batek bere aitaren itsasontzia zeraman, arrantzan, eta Jon Kepari itsasoa betidanik gustatzen zitzaion. Behin, laguna Bermeora joatean, ea arrantzale postu bat lor zezakeen galdetu zion. Garbitzaile gehiago behar zuten itsasontzian. Joni, egia esan, garbitzea ez zihoakion, baina garbitzailetik gorantz joanez arrantzale izan zitekeela pentsatu zuen, beraz, garbitzaile sartu zen.



Aiton-amonek ez zuten trabarik jarri, eta hiru hilabete igaro ondoren itsasoratu egin zen.

Madagaskarreko kostalde-runtz abiatu ziren 'Txirimiri' itsasontzian. Jon Kepa, hasierako egunetan ez zebilen oso kontent. Aitor, bere laguna, Jon pixka bat lasaitzen saiatzen zen, baina ez zuen ezer lortzen. Horrela jarraitu zuen Kanariaseraino iritsi ziren arte. Han, egun libre bat izan zuten. Jonek eta Aitorrek egundoko parranda egin zuten, eta gabea, untzira bueltatzean, kapitainak izugarriko errierta egin zien, mozkortuta bait zetozen. Biak hilabete batez garbitzera zigortuak zeuden. Hau Jon Kepari bost axola, zeren eta berak nahitanahiez garbitu behar zuen, baina Aitorrek izugarriko haserraldia harrapatu zuen. Aitorri hilabete hura izugarri luzea egin zitzaion, baina azkenean, berriro bere zereginei ekin zion.

Bi aste igaro ziren Dakarren gelditu arte. Han jangaiak hartu eta berriro uretara abiatu ziren arrantzaleak. Jon Kepa nazkatzaren hasita zegoen. Gauza polit

eta farregarri batzuk gertatzen ziren, adibidez kapitainak irrist egin zuen eguna, edota antxeta bat Aitorren buruan jarri zen aldia, baina Jon Kepari garbitzea ez zihoakion. Behin, kapitainari zera esan zion:

—Aizu kapitaina.  
—Zer nahi duk mutiko?  
—Begira, hiru hilabete daramatzat garbitzen, eta zerbait desberdina egin nahi nuke. Posible alda?  
—Ez zekiat ba. Ea... a, a! Sukaldarien pintxea gaixo jarri da. Bere postua bete nahi al huke?  
—Ondo da. Noiz hasiko naiz?  
—Gaur bertan.  
—Eskerrik asko kapitaina. Agur!  
—Agur mutil. —Eta berekiko esanez— Mutiko hau oso jatorra duk. Kontutan izan beharko diat.  
Aitor aurkitu zuenean, izugarri pozik zegoen.  
—Aizak Aitor. Sukaldaria nauk! Ijuuu!  
—Banekien bai, gero eta altuago joango hintzakeela.  
—Oraintxe sukaldaria nihoan. Beraz, gero arte!  
—Agur bai.



## BASAJAUN

**G**ure organsimoa eta gure osasuna oso garrantzizkoak dira gure bizitzan, eta, hortaz, jaten ditugun gauza guztiak ere bai. Baina gure janarien artean haragi gehiegi kontsumitzen dugula ezin da ukatu, eta hori egunetik egunera garbi somatzen da, haragiaren kontsumoa gero eta handiagoa delako.

Gure arbasoek ez zuten hainbeste haragi jaten eta hori jakin ahal izan da aurkitu diren ondare arkeologikoen azterketei esker. Haragiaren gaurko kontsumo handia oso eraginkorra da ekologian, behar dena ekoizteko soro eta larreak handitu behar direlako, basoen kalterako, eta ganaduaren ongarriek metano ugari botatzen dutelako, atmosferan berotegi efektua handituz.

Amazonian ere izugarriko arazoa dituzte hanburgesekin, behar den guztia ekoizteko milaka zuhaitz moztu bait ziren —eta moztan ari dira—, eta oihan asko desagertu bait ziren.

Gainera, animalia hauek kimikoki tratatzen dute, eta hiltzeko metodoak oso aurreratuta daude. Sufrimendua eta minbizia dela eta hiltzen dira eta osasunarako ez dira batere gomendagarriak.

Bestalde, esan beharra dago eskola batean egindako ikerketa batean, landarejaleak haragia jaten zutenak baino bederatzi urte gehiago bizi zirela argi eta garbi gelditu zen.

Badakizue, eta hau ez du esaten edozeinek, ezagutzen dut zertaz mintzatzen ari naizen. Batzuk badakite zergatik? Auskalo, hor dago nere amaiera, misteriotsu samarra.

## KAZKARROAN

## Jenero Xumekoak

## □ Bilboko metroan folk talde bati aditua

Badator itsasoa, Ihoana, hortxe daude arearik gabeko uhinak. Ez maitemindu, Ihoana, Ihoana ez maitemindu tabernariekin, tabernariekin ez Ihoana, gaur ez bada bihar, Ihoana, gaur ez bada bihar Ihoana, komunean aritzeko larrutan eskatuko bait dizute, Ihoana, gaur ez bada bihar, eta hori ifernutik eta desiotik gertu dago, Ihoana. Badator itsasoa, hortxe daude arearik gabeko uhinak, Ihoana.

JEREMIAS ERRO

## KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Mallerrekan jasotako esatera zahar bat ageriko zazu.

1. Ate itxia irekitzekoa
2. Hor ..., Mari Anton
3. Ahaire
4. Landare hazkura emalea
5. Moztu

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
A											
B											
D											

B	1	B	10	A	6	B	3	D	9	A	11
D	6	A	5	B	11	A	10	D	3	A	3
A	1	B	9	D	5	A	8	B	4		
B	2	B	8	D	1	D	4	A	2		
D	8	A	4	B	5	B	6	A	7		

N-36

## Zaharrak berri

Txakur txiki ta pesta haundi.  
Alperrikako jai.

Olazti  
Barrastan egina, barrastan gana.

Lan lasterra, lan alferra.

Ziga (Baztan)

Mozkor eginda autobusean sartu da gizona. Leihotik begira erloju bat ikusten du: 9.30ak. Handik pixkatara beste erloju bat: 9.15ak —«Ez nian ba hartuko kontrako norabidea darman autobusa»— pentsatzen du berekiko. Eta hurrengo geltokian jeitsi zen.

## Bizi Bizian

**L**ekunberriko Mitxausenea Kultur Etxean ikusgai daude hilaren 27ra arte 'Gure aurreko andrak' izeneko argazki erakusketa, Eulalia Abaitua Allende argazkilari bizkaitar famatuarena. Bertan aurki daitezke oraindik askoren gogoan



egongo den aminaren irudia, edota juxtu-juxtu gogoratzen diren ohitura eta jazkerak. Ondare etnografiko izugarria, Eusko Jaurlaritzaren Kultur Bideetan programaren barruan antolatutako erakusketa honetan iragana dator gogora.

# Behialako andreak

M.K. / IRUNEA

Eulalia Abaitua Allende Salazar Bilbon jaio zen 1853ko urtarrilaren 25ean. Argazkilaritzarako bere zaletasuna Liverpoolen (Inglatera) sortu zitzaion, bere senarrarekin han zegoela. Bilbora itzultzean, bere argazkilari lanari ekin zion Abaituak txuribeltzeko estereoskopiazkoa argazki-xaflak erabiliz, eta gehienbat gizon-emakume arrunten erretratoen bidez. Horretarako Begoñako Elizatea,

Arratiko Ibarra, Kresal Ibaia eta Bizkaiko beste hainbat tokitan aritu zen. 1943ko irailaren 16an, larogeitamar urte zituela hil zen Bilboko Zabalguneko bere etxean.

Abaituaren lanaren balioa azpimarratzeko bi gauzei erreparatu behar zaie lehendabizi. Eulalia Abaitua argazkizale hutsa zen, baina hala ere, etengabe izan zuen aurrerapen teknikoekiko kezka, eta bere teknika oso landua ez bada ere, ezagutu zuen garaiko argazkilarien onespena

jaso zuen. Halaber, kontutan hartu behar da bizi zuen egoera soziala, hain zuen emakume izateagatik balore bikoitza ematen bait dio bere lanari.

### INGURUAREKIKO ATXEKIMENDU BEREZIA

Orijinal guztietan azpimarratzekoa da bere ingurua eta bere herririkideekiko erakusten duen atxekimendua. Alberto Schommer argazkilariak bere lana aurkezterakoan adierazten duen bezala, «Eulalia bere herria maite eta interpretatzen duen begi sentibera da».

Aipatzekoa da ez dituela apenas familiaren argazkiak ateratzen, ohizkoa litzatekeen bezala, eta jende soilaren bizimodua eta izakera argazkitan gauzatzen saiatzen da. «Ez du bilatzen arte-arte soilik —dio Schommerrek—, ezta argien jokua edota aurretik prestatutako ikusgaiak. Benetako erreportaria izango li-

tzateke gaur egun, Magnus agentzietakoa».

«Gainera —segitzen du argazkilari famatuak—, oso ongi daki jendearengana hurbiltzen argazkiak ateratzeko, argazkilari baten aurrean daudela jakin arren, bere jatorrizko espresioari eusten bait diote».

Abaituak 1873an egin zituen bere lehendabiziko orijinalak —hau da, lehendabiziko argazkia egin eta hogeitamahiru urte beranduago—, eta azkenak 1936koak dira. Denbora ez da

alferrik igaro harrez geroztik, eta material asko ez dago bere onean, ehun bat urtez Urkijo Olano familiak gorde bait zuen. Gainera kontutan hartu behar da garaiko teknikak ere ez zeudela sobera aurreratuak, eta kontserbatzeko metodoek ezin izan zieten argazkien osotasunari eutsi.

Erakusketa hau Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoak antolatutakoa, da, eta garaiko andreak aukeratzean, argazkilariak berari omenaldia egin nahi izan dio.




Mari Juana Auriketa, Indusi-Dimakoa, Begoñako Elizateko Landakoe txeko hariztiko azokan. Abaituaren lanen ezaugarritakoa da emakumeak lanarekin duen harremana.



Petra Egileor (ezkerrean) eta auzokideak igandeko karta-jokuan Zeanuriko Albakoa baserriko atarian. Ohartzekoa gizonen erakusten duten naturaltasuna.

Gizaki leinu bati darion erretratu. Abaituak ez zituen sobera prestatzen bere lanak, eta pertsonai guztiek oso aurrepegi lasaia dute, kamara aurrean egongo ez bailiran.



Neskak, koskorretatik, eguneroko lanak ikasten. Mutilkoak, birtartean, haiei begira.

Iñaki

Gauna

.....Esperanto Elkarteko Lehendakaria

# «Esperantoa kultura oso bat da»

AINHOA ARROIABE / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Esperantoa zabaltzeak akulturazioa sor dezake, herrietako hizkuntzak desager daitezkeelako. Honela ez al da galtzen hizkuntzaren bidez herri bakoitzak daukan nortasuna?

**IÑAKI GAUNA.**— Ez, guztiz kontrako da, esperantoaren lema da 'Nork bere hizkuntza eta esperantoa guztiontzat'. Alde horretatik esperantistek beti defenditu dute hizkuntz gutxiagotuek berenari heldu behar diotela, eta gero, nazioarteko harremanetan esperantoa erabili. Hau dela eta, esperantoa hizkuntza gutxiagotuen alde azaltzen da erabat. Gure kasuan, esate baterako, Euskal Herrian, euskaldunok berez gure hizkuntza ezagutu behar dugula defenditzen dugu, hau da, euskara lehenbizi eta gero esperantoa nazioarterako hizkuntza lagungarri bezala. Beraz, esperantoaren bidez ezinezkoa da ama hizkuntza ez den bigarren hizkuntza nagusitzea.

**EGUNKARIA.**— Munduan nagusitzen diren hizkuntzen indarra kontutan hartuz, ez al da utopikoa esperantoarekin jarraitzea?

**GAUNA.**— Bueno, hamar milioi pertsona daude munduan esperantoa egiten dutenak. Alde horretatik hamar milioi pertsonarentzako ez da utopia izan. Guk elkarri ulertzen diogu esperantoari esker, beraz, argi dago, batetik, gauza dela komunikazioa bideratzeko, eta bestetik, praktiko dela eta erakutsi duela bere gaitasuna. Geroari begira, benetan jende guztiak egingo duen ala ez, hori jendearen esku dago. Dena den, esperantoak baliabideak baditu munduko hizkuntza izateko, arazoa beraz ez dago esperantoan baizik eta gure aukeran.

Jendeak ikasteko eta erabiltzeko egiten duen aukeran.

**EGUNKARIA.**— Nazioarteko komunikaziorako hain baliotsua izan arren, ofizialtasuna lortzeko arazoak dauzka, zergatik?

**GAUNA.**— Ofiziala izateko arazo bakarra, ingelesaren inguruan sortu diren interes ekonomikoak dira. Orduan, herri anglosaxoiek ez dute amorerik eman nahi eta inglesa inposatu nahi dute, egundoko negozioa bait da.


**E** sperantistek beti defendatu dute hizkuntz gutxiagotuek bereari heldu behar diotela, eta nazioarteko harremanetan esperantoa erabili.

**EGUNKARIA.**— Esperantoa egi-terakoan mendebaldeko hizkuntzak erabili ziren batik bat. Hautaketa honen bidez ez al dira baztertzen herri gutxiagotuen hizkuntzak?

**GAUNA.**— Hautaketa hau lexikoa moldatzeko egin zen. XVII. mendean bi aukera zeuden, alde batetik, hitzak guztiz asmatzea edo bestela bizirik zeuden hizkuntzetan oinarritzea. XVII. mendetik hainbat saio izan ziren hizkuntza guztiz artifizialak eginik, baina ikusi zen oso zailak zirela, horregatik Zamenhoffek pentsatu zuen lexikoa behintzat, bizirik zeuden hizkuntzetatik hartzea. Arazoa zen zein irizpide erabili eta zenbait proba egin ziren. Leku guztietatik hitzak hartu ziren, baina zailegia zela ikusi

**E**uskal Herriko Esperanto Elkartea, orain dela lau zapabost urte sortu zen oso helburu zehatzekin: batetik, esperantoaren bidez ondoan dauden herriak eta kulturak ezagutzera eta bestetik, Euskal Herria eza-

gutaraztea herri guztietan. Elkarte hau Euskal Herriko hiru hiriburutan dabil lanean gaur egun, Bilbo, Gazteiz eta Iruñean, eta bertan hizkuntz artifizial hau ikasteko gogoak dituztenek dohain egiteko aukera dute.



Iñaki Gauna, joan den asteartean, UEUn.

OLATZ ARRIETA

zen, beraz, auzia ondo aztertu ondoren, lexiko 'nazioartekoena' erabiltzea erabaki zuen Zamenhoffek.

Hizkuntza europarrak zabalduenak zirenez, hauek erabili ziren. Dena den, hautaketa honek ez ditu hizkuntz gutxiagotuek kaltetzen, lexikoa hizkuntz baten parte da, baina hor daude sintaxia edo morfologia ere, eta alde honetatik esperantoa hizkuntza aglutinantea da, euskara bezala. Kontua da hizkuntzaren funtzionamendua. Hau dela eta, hizkuntza gutxiagotu askok, nahiz eta lexikoan amore eman behar izan duten, hizkuntzaren beste

zatiengan abantaila dute. Hau da euskararen kasua. Esperantoa oso erraza da euskaldunentzako, batez ere, bi hizkuntza hauek morfologia eta sintaxi aldetik oso hurbil daudelako, nahiz eta lexiko aldetik urrunago geratu.

**EGUNKARIA.**— Esperantoa, gainontzeko hizkuntzak bezala, sexista da?

**GAUNA.**— Hizkuntzek errealitatea isladatzen dute, eta nire ustez, gaur egun oraindik mundua eta gizartea sexista da. Aldatzen ari da baina ez da lortu benetako aldaketarik. Orduan, nik uste dut esperantoa gainontzeko hizkuntzak bezala sexista dela, gizar-

tea sexista den neurrian. Dena den, hizkuntz ezaugarrietatik begiratu, esan beharra dago sexuak ondo bereizturik daudela. Gizonezkoak aipatzeko atzizki bat dago eta berdin gertatzen da emakumezkoen kasuan. Hizkuntz irizpiden arabera, beraz, sexuak parekatuak daude. Erabilera aldetik, ordea, gizartea sexista den bitartean esperantoak ere sexismo hori isladatuko du.

**E** sperantoa ofiziala izateko arazo bakarra ingelesaren inguruan sortu diren interes ekonomikoak dira. Anglosaxoiek ingelesa inposatu nahi dute.

**EGUNKARIA.**— Esperantoa hain anitza izanik, ikasteko orduan zaila al da?

**GAUNA.**— Guztiz kontrako, hiru hilabetetan, berrogeitamar ordutan ikastea posible da. Helduentzat aproposa da eta baita umeentzat ere, azken batean jolas bat da, eta oso erraz menperatzen da, antzekotasunen bidez funtzionatzen bait du.

**EGUNKARIA.**— Esperantoaren inguruan dialektoak sortu al dira?

**GAUNA.**— Ez, beste hizkuntza batzuk sortu ziren esperantoa oinarritzat harturik, baina ez dira dialektoak, 'esperanto kumeak' baizik. Bestetik, ezinezkoa da dialektoak sortzea, Esperantoaren akademiak arauak zaintzen ditu eta ez dago aldaketarako lekurik.

NOSKI  
JATOR

ZALDI ERGA

